

Hilabete honetan HOBEKUNTZAREN balioa aurkezten dugu.

*Norbera **HOBETZEA**, giza **BALIO** moduan. Hurbiletik egin beharreko ekintza bat da, planifikatua, esfortzu eta lan etengabea eskatzen dituen... Beraz, esan genezake hobekuntza perfektionatzera bultzatzen gaituen balioa dela, izan alderdi humanotik, espiritualetik, profesionaletik edo ekonomikotik.*

Beti dago egin beharreko beste urratsen bat. p228

Etorkizuna gizakien eta herrien esku dago, une oro eta belaunaldi bakoitzean hobera egin baitaitezke besteen errentetatik bizitzeari uko eginda norberak dituen bertuteak eta gaitasunak oinarri hartuta. p232

Barkatzen zailena da hobetzeko gogorik ez izatea. p240

Beharrezkoa da hobetzea, ezinbestekoa da erakundean bertan zein etorkizunari begirako proiektioan eta konpromisoetan hainbeste gustatzen ez zaizkigunak eraldatzeko borroka egitea. p244

Arazo komunak gainditu eta aktiboki konpontzen lagundu nahi izatea da herri baten benetako bizitasunaren sintomarik hoberena. p259

Bizitzea ibiltzea da, ibiltzea atzera egiteko aukerarik gabe. Bizitzaren etapa bakoitzean gizakiak zailtasun eta arazo berriak aurkitzen ditu, eta ezin ditu saihestu atzera eginda, gainditu behar ditu; bestela haien menpe eroriko da eta. Hori da, hain zuzen, gizateriaren martxa arautzen duen lege historikoa. p261

Gure zintzotasunak, elkartasunak eta hobetzeko grinak gaur egun ametsezkoak irudi dezaketen ikuspegiak ireki ditzakete, eta, egiazki, ez dira ametsezkoak egungo errealitate ekonomiko-sozialak ezagutzen dituztenen aburuz. p462